



Usurbilgo Udala

**TOKIKO GOBERNU BATZARRAK 2019KO URRIAREN 17AN
GOIZEKO 12:00ETAN EGINDAKO EZOHIKO BILKURAKO AKTA**

BERTARATUAK:

Alkatea: Agurtzane Solaberrieta Mesa.

Zinegotziak: Beñat Larrañaga Urdanpilleta eta Lur Etxeberria Gurrutxaga.

Idazkaria: Irantzu Arrizabalaga Gainza.

Ez dira bertaratu: Joxe Mari Iribar Zapirain eta Itziar Basterrika Unanue.

1.- AURREKO BILKURAKO AKTAREN ONESPENA: 2019/09/24.

Batzarkideek, 2019ko irailaren 24ko bilkurako akta aho batez onartu dute.

2.- SANTUENEA 36 ETXEAN IGOGAILUA JARTZEKO UDAL BAIMENA EMATEA.

Esp. Zenbakia: HZ.04/2019-0302

PEDRO MARI ALCAIN ECHENIQUE jaunak, Santuenea 36 etxean igogailua jartzeko udal baimena eskatu du.

OBRAREN EZAUGARRIAK	
Exekuzio materialeko aurrekontua:	Guztira: 26.293,96 €
Obrari dagozkion hobariak:	% 90 hobaria (Ordenantza Fiskalak, VII. Hobariak, 11.b artikulua)
Hondakinen Kudeaketarako Azterlana:	Aurrekontua: 200,16 €
	Fidantza (%120): 240,19 €

UR AGENTZIAREN TXOSTENA

Eskaera aztertu ostean, udal arkitektoak, Ekhiñe Egiguren Azkune andereak, Ur agentziari dagokion txostena eskatzea proposatu zuen.

Ur agentziak helarazi duen txostenak honela dio hitzez hitz:

CO-G-2019-01 07

GAIA: USURBILGO (GIPUZKOA) UDALERRIAN, ORIA IBAIAREN EZKER



Usurbilgo Udala

ERTZEKO UREN POLIZI GUNEAN SANTUENEA 36 ETXEBIZITZAN IGOGAILU BAT JARTZEARI BURUZKO KONTSULTA.

1. ESKAERA

2019(e)ko abuztuaren 29 AYUNTAMIENTO DE USURBIL 1 USURBILGO UDALA(e)k Uraren Euskal Agentzian kontsulta bat aurkeztu zuen erreferentziatzko lanak egitearen egokitasunari buruz.

Eskaera obrak egingo diren gunearen kokapen plano batez eta memoria deskriptibo batez laguntzen zen.

2. HAUSNARKETAK

Lana Usurbilgo Santu enea auzoa 36. zenbakian dagoen Aialde Zaharra etxebizitzaren barruan igogailu bat jartzean datza, behe solairutik lehenengo solairura iristen delarik.

Obrek ez dute eraikinaren ez bolumen ez eta kontsolidatutako alineazio aldaketarik suposatuko. Etxebizitza Oria ibaiaren ezker ertzarekiko 25 metro baino urrunago aurkitzen da eta gainera etxebizitza barruan egin behar dira lanak.

Erreferentziako eremuaren uholdagarritasun analisiak erakusten du Oria ibaiaren ezker ertz hori 10 urteko itzulera epea duten gehienezko uholde boladetan (Q_{010}) partzialki urazpian geratzen dela eta erabat uholdatzen dela Q_{010} uholde boladetan. Q_{010} uholde boladak erreferentziako eremuan 11,2 m.-ko kota harrapatzen du eta Q_{500} uholde boladak 12.5 m.-ko kota (REDNAP-2008 erreferentzia sistemari lotutako kotak).

3. ONDORIOAK

Bulego honetatik jakinarazten da Usurbilgo (Gipuzkoa) udalerrian, Oria ibaiaren ezker ertzeko uren polizi gunean kokatutako eraikin honen barruan igogailua jartzeko ez dagoela arroko Organismoaren baimena eskatu beharrik.

Dena den, lanen sustatzaileak hurrengo alderdi hauek kontutan hartu beharko ditu:

1) Eskatzailea, egun indarrean den Uren Legeak ezartzen duen eta urak gehienezko uholde ordinarioetan azpian hartzen dituen lurretatik hasita 5 metroko zabalera duen uren zortasun gunea bere horretan, erriberako berezko landarediaz modu naturalean eta itxiturarik gabe mantentzera behartuta dago.

2) Lanekin ezingo da inolako zaborrik errekastora isuri eta lanak iraun bitartean bereziki zaindu beharko da hormigoirik errekastora ez isurtzea.

3) Uholdagarria den uren polizi gunean, erabilera mugak ezartzen dituen ekialdeko kantauriar Demarkazio Hidrografikoaren zati espainiarraren Plan Hidrologikoaren berrikuspena onartzen duen urtarrilaren 8ko 1/2016 Errege



Usurbilgo Udala

Dekretuaren 40.3 artikulua ezartzen du eremu honetan ezingo dela erabili 0500 uholde boladak harrapatutako mailatik behera bizileku bezela eraikin gunerik.

4) Uholdagarria den gunea denez egiten diren lanak direla eta, Administrazio Hidraulikoa ez da izan daitezken kalteen erantzule egiten.

Donostia, 2019ko irailaren 30a

Mikel Pikasari Bengoechea
Iñigo Auza Aldasoro

Eskaera eta ur agentziaren txostena aztertu ostean, udal arkitektoak, Amaia Illarreta Izeta andereak, 2019ko urriaren 7an ALDEKO txostena eman du.

Gauzak horrela, udal arkitektoaren txostena irakurri ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

LEHENDABIZI: PEDRO MARI ALCAIN ECHENIQUE jaunari, Santuenea 36 etxean igogailua jartzeko udal baimena ematea, ondorengo baldintzapean:

- **Obrak hasi aurretik. 15 eguneko epean:**

- Hondakinen Kudeaketarako Azterlanaren arabera, obralan eta eraisketa hondakinen kudeaketaren balorazioa 200,16 eurotako da. 112/2012 Dekretuaren 5. artikuluan finkatutakoaren arabera, aurrekontuaren %120ko fidantza jarri beharko da obra baimena ematearekin batean (240,19 € euro). Fidantza itzularazteko, obrak amaitutakoan, haren itzultzea eskatu beharko da hondakinen kudeaketa amaiera txostena aurkeztuz (112/2012 Dekretua 6. artikulua). Orohar, bete beharko dira RD105/2008 eta 112/2012 Dekretua, ezinbestean.

240,19 €-ko fidantza Kutxabankeko 2095 5069 07 1060024832 kontu korrontean sartuko da, interesatuaren izen-abizenak eta “*Fidantza: HZ..04/2019-0302*” jarriaz kontzeptuan.

- María José Lauroba Olloquiegui arkitektoak 2019ko maiatzean (EHAE0 2019-05-20) idatzitako Proiektuari egokiturik egingo dira obrak, beti ere, jarraian aipatuko diren eta udal teknikariak bere txostenetan ezarritako baldintzekin kontraesan batean sartu gabe.
- URA ur agentziak bere txostenean ezarritako baldintzak beteko dira.
- Suteen aurkako babeserako neurri orekatzaileak edo konpentsazaileak ezarri beharko dira, proiektuan finkatu den bezala.



Usurbilgo Udala

- Irogailuak indarren den araudia eta Soinuaren legeak ezarritako soinu gehiengoa bete beharko du etxebizitzaren eremuan, horretarako proiektuan eta obran beharrezkoak diren neurriak hartu beharko direlarik.
- Orohar indarrean den araudia bete beharko da. Orohar, bete beharko dira indarrean den araudiak ezarritako baldintzak (AASS, irisgarritasun araudiak , EKT, Tentsio Baxuko Erreglamendua, Soinu araudia, ... e.a.).
- **OBRA BAIMENAREN EPEAK:**
 - Obra hasteko epe gehiengoa: 6 hilabete.
 - Obra geldituta egon daitekeen epe gehiengoa: 3 hilabete.
 - Obraren egikaritzea epe gehiengoa: urte 1.
- LURZORU PUBLIKOAREN OKUPAZIOA: Obren egikaritzean zehar administrazio-emakidaz utzitakoaz gain, lurzoru publikoa okupatu behar bada (puntu garbiarekin, adibidez), berariazko baimena lortu beharko da.
- Euskararen Udal Ordenantzaren 41. atalak dioenari jarraituta, obra garaian beharrezko diren trafiko seinale eta iragarpenak euskaraz jarriko dira.
- Behin obrak bukatu ostean, eta Lehen Erabilera baimena eskatuko da ondorengo dokumentuz lagundurik:
 - Obra Amaierako planuak, likidazioa eta ziurtagiria, obra zuzendaritzak izenpetuak eta dagokion Elkargo Profesionalak ikus-onetsiak; non ziurtatzen den obra baimenaren baldintzak bete eta indarrean den araudiaren betetzea bermatzen dela.
 - Obra amaierako argazkiak.
 - Irogailua funtzionamenduan jartzeko Industria sailaren ziurtagiria/baimena.
- Lege arau eta ordenantzen arabera, obra egiteko baimenak balioa izatekotan, baimenduak bete beharreko baldintza orokorrak hauek dira:
 - Eraikuntzako Ordenantza orokorrak beteaz egingo da obra.
 - Obra egin bitartean inor kaltetuz gero, ezingo du baimenaz baliatu kalteen erantzukizun zibila ekiditeko.
 - Indarrean dauden lege eta ordenantzen arabeko segurtasun neurriak beteko dira.
 - Baimena hau hirugarrengoen kalterik gabe eta jabetzaren salbuespenean ematen da.

BIGARRENA: Erabaki honen berri interesatuari eta Kontuhartzaileari emango zaio.



Usurbilgo Udala

3.- FAGOR EDERLAN S.COOP. ENPRESAK ORIA IBAIAREN ESKUINALDEAN ERABERRITU ETA SENDOTU DUEN UR HARTUNEKO HARRI LUBETARI LEHEN ERABILERA BAIMENA EMATEA.

Esp. Zenbakia: HZ.04/2017-0484

FAGOR EDERLAN S.COOP. enpresak (IFK: F20025292), Oria ibaiaren eskuinaldean, eraberritu eta sendotu duen ur hartuneko harri lubetaren lehen erabilera baimena eskatu du.

AURREKARIAK – ERAIKITZEKO BAIMENA

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2018ko urriaren 30ean, FAGOR EDERLAN S.COOP. enpresari, Oria ibaiaren eskuinaldean, ur hartuneko harri lubeta eraberritu eta sendotzeko udal baimena eman zion.

OBRAREN EZAUGARRIAK	
Exekuzio materialeko aurrekontua:	39.601,88 €
Obra amaierako ziurtagiria:	Guztira: 54.404,89 €
Obrari dagozkion hobariak:	Indarrean diren Ordenantza Fiskalen arabera hobariak ez dira aplikagarriak
Hondakinen Kudeaketarako Azterlana:	Aurrekontua: 850 €
	Fidantza (%120): 1.020 €.

LEHEN ERABILERA BAIMENA

2019ko urtarrilaren 25ean eta apirilaren 10ean, FAGOR EDERLAN S.COOP. enpresak, obra amaierako dokumentazioa aurkeztearekin batera, , tartean hondakinen kudeaketa amaiera txostena, lehen erabilera baimena eta hondakinen kudeaketa egokia bermatzeko 2018ko azaroaren 8an ezarritako 1.020,00 €-tako fidantza (IE 20-2018) itzultzeko eskatu du.

TXOSTEN TEKNIKOA

Udal arkitektoak, Miren Dorleta Erausquin Alijostes andereak, aurkeztutako dokumentazioa aztertu ostean, 2019ko urriaren 2an lehen erabilera baimen eskaerari ALDEKO txostena eman dio.

Gauzak horrela, txosten teknikoa irakurri ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA



Usurbilgo Udala

LEHENDABIZI: FAGOR EDERLAN S.COOP. enpresak, Oria ibaiaren eskuinaldean, eraberritu eta sendotu duen ur hartuneko harri lubetari lehen erabilera baimena ematea.

BIGARRENA: Hondakinen Kudeaketa egokia bermatzeko 2018ko azaroaren 8an ezarritako 1.020,00 €-tako fidantza (IE 20-2018) itzultzeko agintzea kontuhartzaitzari honako kontu zenbakian: 3035 0001 58 0014104365.

HIRUGARRENA: Erabakia jakinaraztea interesatuari eta Kontuhartzaileari, zergen kitapena egin dezan.

4.- 2018/19 IKASTURTEAN AISIALDIKO BEGIRALE/ZUZENDARI IKASTAROAK EGIN DITUZTENENTZAKO DIRULAGUNTZA KOPURUAK BEHIN BETIKOZ ONARTZEA.

Esp.zk.: KE.01/2019-0108

Ikusirik

2019ko ekainaren 4an, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, aisialdiko begirale edo zuzendari ikastaroak egin dituztenentzako dirulaguntza oinarriak argitaratu ziren. Eskaerak aurkezteko epea ekainaren 24an hasi eta uztailaren 5ean amaitu zen.

Epea amaitu ondoren 11 eskaera aurkeztu dira.

Dirulaguntzen Batzorde Orokorrek 2019ko abuztuaren 8an egindako bilkuran, ebazpen-proposamena egin zuen aisialdiko ikastaroetarako dirulaguntzen inguruan.

Ebazpen-proposamena abuztuaren 16ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, interesatuei hamar eguneko epea emanez alegazioak aurkezteko.

Bestalde, Udaleko iragarki taulan eta www.usurbil.eus web orrian ere behin behineko ebazpenaren berri eman da.

Epe horretan ez da alegaziorik aurkeztu.


Eta kontuan harturik

- Azaroaren 17ko 38/2003 Legea, dirulaguntzak arautzen dituen.
- Dirulaguntzak arautzeko udal ordenantza (GAO, 2008/07/01).
- Usurbilgo Udalaren dirulaguntzen plan estrategikoa (2017/07/18).
- Aisialdiko dirulaguntzak eskatzeko deialdia (GAO, 2019/06/04)
- Aisialdiko dirulaguntzei buruzko ebazpen proposamena (GAO, 2019/08/16)

Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

E R A B A K I A

Lehenengoa: 2018/19 ikasturtean aisialdiko begirale/zuzendari ikastaroak egin



Usurbilgo Udala

dituztenentzako dirulaguntza kopuru hauek behin betikoz onartzea eta ordainketak bideratzea.

BEGIRALE IKASTAROA

	Izen abizenak	Dirulaguntza
1	Ainhoa Perez Arruti	175,00 €
2	Ane Diez Lure	175,00 €
3	Lide Pagola Agorreta	175,00 €
4	Amaiur Sasiain Ortuñez	222,50 €
5	Nahaia Arbizu Zabala	175,00 €
6	Itxaso Sanchez Encinas	175,00 €
7	Maria Hernandez Arregi	175,00 €
8	Intza Ruiz Orotegui	175,00 €
9	Imanol Iribar Rodriguez	175,00 €
10	Ane Elexpe Cabrera	175,00 €
	GUZTIRA	1.797,50 €

AISIALDIKO ZUZENDARI IKASTAROA

Izen abizenak	Dirulaguntza
Ane de Miguel Rikondo	170,00 €

Bigarrena: Dirulaguntzak aurrekontu-partida honen kargura joango dira: 1 4400 481 326 00 01 2019 (A 895/2019)

Hirugarrena: Kontuhartzaileari akordioaren berri ematea.

Laugarrena: Behin betiko ebazpena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

Bosgarrena: Udaleko iragarki taulan eta www.usurbil.eus web orrian ere behin betiko ebazpenaren berri emango da.

Eta eztabaidarako gaiak amaiturik, alkateak batzarraldia bukatutzat eman du, eguerdiko 12:15etan bilera agiri hau jaso da, batzordekideek izenpetuz eta nik, idazkariak, ziurtatuz.